

Ingurumen Buletina

- 1. Rio+20rako azken txanpa**
- 2. Garoña itxi orain!**
- 3. Emakumeon borroka elikadura burujabetzaren alde**
- 4. Hego Euskal Herriko enpresa kutsatzaileenak**
- 5. "La historia de las cosas" (gomendatutako bideoa)**

1. Rio+20rako azken txanpa

Ingurumena eta Garapen Jasangarriaren inguruko Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Goi Bilera, 1992an egin zen Rio de Janeiron (Brasil). Ingurumenarekin loturiko goi bilera internazionalen abiapuntua izan zen. Momentu hartan eztabaidarako gaiak ekoizpena, energia, garraioa, kutsadura eta ura izan ziren. Ikuspuntu ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa integratuko zituen garapen jasangarriaren oinarriak ezarri ziren. Goi bilera hartatik irten zen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Erakundearen Konbentzioa, geroago Kiotoko Protokoloa bertatik irtengo zena; baita Agenda21 programa ere.

20 urte pasa dira eta ekainean beste goi bilera bat ospatuko da, dagoeneko Rio+20 bezala ezagutzen dena. Azken bi hamarkadetan injustizia sozialari aurre egiteko ekimen faltak itxaropena zapuztu du eta NBEk zuen entzutea galdu du, eta baita estatu askotako gobernuak ere. Ingurumenak azken 20 urteetan izan duen garapena guztiz negatiboa da. Horregatik proposamen eta alternatiba berriekin egin behar dugu aurrera, benetako justizia soziala eta ingurumen justizia suposatuko duena. NBEren goi bilera ofizialerako aurreikusten den gai zerrendan "ekonomia berdea" deritzana da gai nagusia, baina badakigu hau makillaje hutsa dela, negozioa egiteko beste modu bat dela; ekoizpen eta kontsumo eredu kapitalistak eragin duen eta

planetak sufritzen duen krisi globalari aurre egiteko irtenbidea ez dela badakigu. Horregatik Rion egingo den "Justizia Soziala eta Ingurumen Justiziaren aldeko Herrien Goi Bilera", goi bilera alternatibo hau izango da hondamendira garamatzan sistema honi aurre egiteko benetako irtenbideak eskainiko dituen foroa. Foro honetan gizarte mugimenduek eta izaera ezberdineko hainbat eragilek parte hartuko dugu oraingoan berdez jantzi den kapitalismoaren makinaria ankerrari aurre egiteko. Benetako justizia soziala lortzea, eta pertsonen eta ingurumenaren arteko oreka berreskuratzea ahalbideratuko duten alternatibak aurkeztuko ditugu, beste edozerk amildegirantz gerturatzea suposatuko bailuke.

Rio+20ri buruzko informazio gehiago eskainiko dugu ELAko ingurumen ataleko ondorengo Buletinetan.

2. Garoña itxi orain!

Euskal Herritik oso gertu, Gasteizetik 45 kilometrora eta Bilbotik 80 kilometrotara dagoen Garoñako zentral nuklearra estatuan dagoen zaharrena da eta duela urtebete (2011ko martxoaren 11n) Japonian hondamendi nuklearra eragin zuen Fukushima zentralaren teknologia berdina dauka. Inguruko populazioak (zentraletik 100 kilometroraino bizi direnak) arrisku bizia du istripu nuklear bat sufritzeko. Zentralaren 40 urteko bizitzan zehar hainbat akats izan ditu, batez ere

azken urteetan, baina hau ez da eragozpena izan estatuko gobernu ezberdinek zentral nuklearra irekita mantentzeko eta bere bizitza luzatzeko.

Garofña zentral zaharkitua da, arriskutsua, beharrezkoa ez dena, jada amortizatuta dagoena, eta energia askorik sortzen ez duena, bere desagerpena dagoeneko berriztagarrien hazkundearekin ordezkaturik dago.

Nukleor enpresaren eta honen atzean dauden Iberdrola eta Endesa enpresen etekin ekonomikoa gure gainetik daude. Garofñak sortzen duen energia apurra beste energia iturri batzuetatik lortu daiteke beraz ez da beharrezkoa. Irekita mantentzeko arrazoi bakarra enpresa elektrikoen irabazi ekonomikoak dira.

Fukushimako istripitik ikasi beharrean, Alemanian 17 zentraletatik 7 zaharrenak itxi eta gainontzekoen itxiera programa zehaztu duten bezala, hemen logikaren eta arrazoiaren gainetik Garofñaren bizitza luzatu da. Jose Manuel Soriak, Industria Ministro espainiarrak, Garofña 2019 arte irekita mantentzeko erabakia jakinarazi du. ELAk erabaki honen arduragabekeria eta atzean dauden interes ekonomikoak salatzen ditu eta arrazoi guzti hauengatik zentralaren berehalako itxiera exijitzen dugu.

Horregatik Fukushimako istripuaren urteurrenean, ELAk hainbat ekintzetan parte hartu du. Martxoak 10ean Bilbon manifestaldia egin zen hainbat eragile sozial, politiko eta sindikalek deituta. Martxoaren 11n berriz, Baionako giza katean parte hartu

genuen eta baita Gasteizen egin zen kontzentrazioan ere.

Hain kezagarria eta larria den gai honen inguruan mobilizatzen jarraituko dugu. Garofña itxi orain. Energia nuklearrik ez!

3. Emakumeon borroka elikadura burujabetzaren alde

Elikadura burujabetza ez da gai berria ELAn. Denbora daramagu nekazal ekoizpenaren banaketaren eta kontsumo eredu aldatu beharraz hitz egiten. Eredu aldaketaren momentuan gaude eta egungo sistemaren alternatiba elikadura burujabetza da. Ez da nekazarien eskubideak, ingurumena, eta elikadura segurtasuna bermatzeko tresna sektorial soil bat. Elikadura burujabetzaren aldeko borroka, sistemaren aldaketa integralerako proposamen bezala ulertu behar da.

Frogatuta dago sufritzen dugun eredu agroindustrialak guztiz ezgauza dela pertsonen elikadura beharrak asetzeko, batez ere herrialde pobreenetan bizi diren pertsonenak, eta guztiz bateraezina dela pertsonen eta ingurumenaren arteko orekarekin. Produktuek milaka kilometro egiten dituzte. Klima aldaketa, lurrazaleko uren eta akuiferoen kutsadura, kutsadura transgenikoa, biodibertsitatearen suntsiketa,... bezalako ingurumen inpaktu larriak eragiten ditu. Baina batzuetan ahaztu egiten zaigu aipatzea sistema honek, aurretik esandako guztiaz gain, injustua dela emakumeekin eta emakumeek sufritzen dituzten ezberdintasunak

areagotzen dituela, bai lurak eskuratzeko garaian, bai beraien lan baldintzetan, eta baita parte hartze politikoan ere.

Emakumeak dira munduko elikagaien ekoizle nagusiak. Hegoaldeko herrialdeetan elikagaien %60 eta %80 bitartean emakumeek ekoizten dituzte. Ekoizpenean hainbesteko garrantzia izan arren, emakumeak eta haurrak dira gose gehien pasatzen dutenak. Emakumeek hartu dute familiaren zaintzea eta elikatzearen ardura, autokontsumorako elikagaiak ekoiztearena, produktuen komertzializazioa,... baina beti modu ikusezin batean. Bizitzako beste arlo guztietan bezala, sexuen araberako lan banaketa ematen da.

Baina ezinbestekoak dira emakumeen ekarpenak borroka guztietan: emakumearen autonomia lortzeko; etxean eta kanpoan lan eta bizi baldintza duinak eskuratzeko; elikadura, osasuna eta hezkuntza eskubideak lortzeko; emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza baten alde; erreforma agrarioaren alde; transnazionalen eta politika neoliberaleri aurre egin eta memoria kolektiboa berreskuratzeko eta lurak defendatzeko borrokan.

Eredu honen alternatiba elikadura burujabetza da: ekoizten denaren gaineko erabakiak berreskuratzeko datza, jaten duguna nola eta non ekoiztuko den baserritarrek erabakitzea; lurra, ura eta haziak beraien esku egotea; gure elikadurari dagokionez burujabeak izatea. Baina emakumeak mundu mailan nekazaritzako eskulanaren erdia bagara, ikuspuntu

feministarik eta eraldatzailearik ez duen elikadura burujabetza porrota izango da. Elikadura burujabetzak berekin dakar eredu kapitalistarekin haustea eta bizitza eta pertsonak sistemaren erdian jartzea.

4. Hego Euskal Herriko enpresa kutsatzaileenak

ELAko ingurumen atalean Hego Euskal Herriko enpresen ingurumen egoeraren jarraipena egiten dugu, zeintzuk diren gehien kutsatzen dutenak eta zein sustantzia isurtzen duten badakigu. Datu hauek ez dira guk asmatutakoak. Hego Euskal Herriko enpresa kutsatzaileen emisio datuak iturri ofizial eta publikoetatik jasotzen dira, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. Datuen publikazioa nahiko berandu egiten da eta horregatik ditugun azken datuak 2009koak dira. Garrantzitsua eta komenigarria da denok gure enpresen egoera gertutik jarraitzea eta hobekuntzak exijitzea. Enpresei exijitu behar diegu indarrean dagoen ingurumen legedia betetzea, ez betetzeagatik ixteko zorian dauden enpresak baditugu. Ingurumena errespetatzeak enplegua mantentzea eta enplegua sortzea suposatzen du.

Karbono dioxidoak (CO₂), besteak beste, klima aldaketa eragiten du beste sustantzia kutsatzaile batzuekin batera. Horregatik datuak aurkezterako orduan CO₂ hartuko dugu erreferentzia gisa. Hauek dira 2009an Hego Euskal Herrian CO₂ tona

gehien isuri zuten enpresak:

Herria	Enpresa	CO ₂ Tona
Muskiz	Petronor	2312953000
Amorebieta	Bizkaia Energía	1533189271
Castejon	CTCC Castejón	1040000000
Santurtzi	Central Térmica de Ciclo Combinado	525763000
Pasaia	Iberdrola Generación	494061000
Lemoa	Lemona Industrial	429042000
Olazti	Cementos Portland Valderrivas	427000000
Zubiri	Magnesitas Navarras	378000000
Donostia	Cementos Rezola Añorga	368889200
Arrigorriaga	Cementos Rezola	332446363

Taula hauek datu guztietatik eginiko aukeraketa bat da, datu guztiak ondorengo loturetan aurkitu daitezke:

[EAE](#)

[Nafarroa](#)

5. “La historia de las cosas” (gomendatutako bideoa)

Sufritzen ari garen krisi globalari buruz hitz egiteko arazoaren muinera jo behar da: ekoizpen, banaketa eta kontsumo eredu. Bideo honek oso ongi azaltzen digu planeta eta bertan bizi garen pertsonak nola iritsi garen muturreko egoera honetaraino, eta zein den alternatiba.

Kliklatu [hemen](#) bideoa ikusteko.